

**UEUren Batzar Nagusiko akta
Eibar, 2023ko otsailaren 25a**

1. ZUZENDARIAREN ONGIETORRIA

Kepa Sarasolak, UEUko zuzendariak, ongietorria ematen die biltzarrera hurbildutako bazkideei.

2. 2022ko BALANTZEA eta EMAITZA-KONTUA

UEUko zuzendari Kepa Sarasolak egiten du urteko balantzea, gai-zerrendarekin batera eta bilera-deialdiarekin igorritako dokumentazioa oinarri hartuta.

2022rako jarritako erronka nagusiak aipatzen ditu:

1. 50. urteurrena, kanpo-harremanak, aitortza eta udako ikastaroen edizio bete eta borobila gauzatzea.
2. UEU Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko agente bilakatzea.
3. GOI Ikastegi Atxikia indartzeko eta titulazio gehiago eman ahal izateko, egindako kanpo-harremanak.

Ondoren, atalka, egitasmoaren balantze zehatzagoa egiten du, eta bukatzeko, Talde Eragileko 50. urteurrenaren arduraduna den Koldo Garciari pasatzen dio hitza, urte borobil hau baloratu dezan.

Koldo Garciak urteurrenerako finkaturiko helburuak aipatzen ditu: alde batetik, ospatzea; bestetik, erakunde-mailan aitortza eta erreferentzialtasuna lortzea, eta, azkenik, oinarri sozialaren aktibazio eta saretzea.

Ondoren, urtean zehar antolaturiko ekintza guztien errepassoa egiten du, izandako parte-hartzea azpimarratuz eta emaitzak gogoratuz. Urtearen balorazioa, ikuspegi horietatik, oso ona da.

Biltzarrera hurbildutako parte-hartzaileen aldetik ere UEUK izan duen oihartzuna azpimarratzen da eta horren plangintza betea aurrera eraman izanagatik zorion-mezuak jasotzen dira.

Ondoren, Ane Sarasua idazkari nagusiak ematen ditu diru-kontuen inguruko azalpen zehatzak. Urtea ondo kudeatu da, % 0,8 izan da defizita eta bolumenean hazi gara, aurreikusitakoa baino % 7 handiagoa izan baita zuritzen den aurrekontua. Urtea, -10.906,59 € defizitarekin bukatu arren, ekonomikoki ona izan da eta urteurrenaren plangintza ondo kudeatu da.

Hasierako eta bukaerako aurrekontuen arteko alderaketaren gako esanguratsuenak aipatzen ditu, hazkuntza non izan dugun hobeto ulertarazteko.

Ondarearen ikuspegitik, zer dugun eta dugun hori zerekin finantzatzen dugun azaldu du, erakundearen fondoak handitu direla eta kapital-dirulaguntzei esker inbertsio teknologikoak (webgune berria) gauzatu direla azpimarratuz. Ondorioz, azpimarratzen du UEU % 9 egonkorragoa dela bere balantze ekonomikoan, altxortegia hobetu dugula eta zorrei aurre egiteko gaitasun hobea dugula.

Urteko balantzea eta emaitza-kontua onartzen dira.

3. ZUZENDARI ETA ZUZENDARITZA KIDEEN BERRITZEA

Egungo Talde Eragileko bi kidek, Xabier landabidea eta Ines Castiellak, kargua uzten dutenez, hautagai berriak aurkezten dira: Arantza Aldezabal Roteta eta Maria Napal Fraile.

Bozketaren emaitzak jaso ondoren, Talde Eragileko kide bihurtzen dira:

Arantza Aldezabal 46 baiezko, zuri 1

Maria Napal: 47 baiezko

Bestetik, Kepa Sarasola Gabiolak zuzendari izateari uzten dio eta hautagai berria aurkezten da: Aitor Bengoetxea Alkorta.

Bozketaren emaitzak jaso ondoren (45 baiezko, zuri 2) UEUko zuzendari berri bihurtzen da Aitor Bengoetxea.

Ongietorria ematen zaie kide berriei; Kepa Sarasolari guztion esker ona adierazteko, aureskua dantzaten dio Informatika Saileko Olatz Arbelaitz lagunak, eta agintemakila jasotzen du Talde Eragile osoaren eskutik. Txalo zaparrada batekin esaten zaio agur Kepa Sarasolari, eta proiektuari egindako ekarpenak bihotzez eskertzen zaizkio.

4. 2023ko EGITASMOA eta AURREKONTUA

Zuzendari berriak, Aitor Bengoetxeak, agur-hitz batzuk eskaintzen dizkie biltzarrera hurbildutako bazkideei.

Ondoren, egitasmo berriaren ildo nagusiak aipatzen ditu, gai-zerrendarekin batera eta bilera-deialdiarekin igorritako dokumentazioa oinarri hartuta.

1. GOI Ikastegia bizialdi osoko ikaskuntzan euskaraz eta online erreferentzia-zentro bihurtzea.
2. Ikerketa Batzordea martxan jartzea, eta GOI Ikastegiaren ikerketa-plana abiatzea.
3. IkerGazte Kongresuaren 5. edizioa antolatzea, maiatzean Donostian.
4. UEUren I. Berdintasun Plana (2023-2026) abiatzea.
5. 51. Udako Ikastaroek gogoeta eta hausnarketarako gune izaten jarraitzea.
6. Euskal Komunitate Zientifikoa sustatzea, bereziki gazteak.
7. Lurraldetasunari erreparatzea eta Ipar Euskal Herrirako urte osorako plangintza bat diseinatu eta eskaintzea.
8. Argitalpenetan, Open Journal System tresnaren garapena gauzatzea.
9. 50 urte beterik eta erakunde historiko bezala, artxibo-sistema antolatzea.



www.ueu.eus

Ondoren, Ane Sarasuak ematen ditu aurrekontuaren inguruko azalpenak.

1.405.000 €-ko aurrekontua aurkezten da, zuritutako 2022. urtekoaren jarraitutasunaren adierazle. Aurkezten den egitasmoari aurre egiteko modukoa den eta egungo azpiegitura finkoa bermatzen duen aurrekontua da. Orekatua eta galerarik gabekoa.

Hala ere, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko agente izendaturik eta ikerkuntza abiatzearekin batera, hazkuntzarako aukerak ematen dituen aurrekontua ere bada. UEU indarturik dago urteurrenaren ostean eta abagune interesgarri batean kokatu gintezke, proiektu berriak abiarazteko aukerekin eta, ondorioz, baliabide ekonomiko gehigarriak eskuratzeko aukerekin. Izan daiteke, hala ere, horren emaitzak 2024ko aurrekontuan islatzea, kanpo-harremanek eta emaitzak lortzeak denbora behar baitute.

Emandako azalpenak entzun ondoren **ontzat ematen dira 2023. urteko egitasmoa eta aurrekontua.**

5. NORBERAK LEKARKEENA

Beste barik, biltzarrari bukaera ematen zaio, guztion bertaratzea eskertuta.